

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ATAUNGO UDALA

*Iragarkia*

Ataungo Udalak, 2022ko uztailaren 5ean egin osoko bilkuran, «Zubikoeta industrialdean karabana eta autokarabanen aparkaleku gisa egokitutako eremuaren erabilera arautzen duen araudia» onartu zuen, eta adierazi zuen jendaurreko aldian alegaziorik aurkeztu ezean erabakia behin betikotzat joko zela.

Jendaurreko epean alegazioak aurkeztu dira eta 2022ko urriaren 5ean egin osoko bilkuran onetsi egin da, funtsezko aldaketarik egin gabe.

Jendaurreko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, behin betiko onetsitako testua argitaratzen da.

Erabakiak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da: Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarkia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita; egoki irizitako beste edozein errekurtso jartzeari utzi gabe.

*Aplikatu beharreko legeria:* Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua.

Ataun, 2022ko urriaren 7a.—Martin Aramendi Arana, alkatea.  
(6333)

ERANSKINA

*Zubikoetako industrialdean karabanak eta autokarabanak aparkatzeko egokitu den eremua erabiltzeko araudia.*

Azken urteotan nabarmen egin du gora karabana eta autokarabana kopuruak Ataunen, eta ohiko bihurtu da zenbait aparkalekutan denbora luzean mugitu gabe aparkatuta izatea. Aitzitik, zenbait gunetan eta zenbait unetan ibilgailuak ondo aparkatzea ez da erraza izaten, dela goazen lekuan bertan aparkatu nahi dugulako, dela ondo aparkatzeko lekurik ez dagoelako.

Horrez aparte, kontuan izan behar dugu nahiz eta autokarabanak aukera izan herrian zehar aparkatzeko, karabanak eta atoiak aparkatzea debekatuta dagoela, Ataunen indarrean dagoen trafikoa, motordun ibilgailuen, zirkulazioa eta bide segurtasuna arautzen duen udal ordenantzaren 9. atalaren arabera:

9. artikulua. Aparkatzeko debekua.

1. Kaleetan ezingo da aparkatu ibilgailu-motorretik bereizitutako erremolkerik, ez autobusik, ez traktorarik, ez karabanarik eta ezta 3.500 kilotik gorako pisua duen ibilgailurik, edo 9 lagun

AYUNTAMIENTO DE ATAUN

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Ataun en sesión celebrada el 5 de julio de 2022 aprobó la «Normativa reguladora del uso de la zona acondicionado como aparcamiento» de caravanas y autocaravanas en Zubikoeta industrialdea señalando de que si en el periodo de información pública no se presentaba alegación alguna el acuerdo se consideraría definitivo.

En el periodo de exposición pública se han presentado alegaciones y en sesión plenaria celebrada el día 5 de octubre de 2022 se ha aprobado la misma con modificaciones que no son sustanciales.

Transcurrido el periodo de información pública sin que se haya presentado ninguna alegación, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica el texto que ha quedado aprobado definitivamente.

Contra el acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio, sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

*Legislación aplicable:* artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

Ataun, a 7 de octubre de 2022.—El alcalde, Martin Aramendi Arana.  
(6333)

ANEXO

*Normativa de uso de la zona habilitada para el estacionamiento de caravanas y autocaravanas en el polígono industrial de Zubikoeta.*

En los últimos años ha aumentado considerablemente el número de caravanas y autocaravanas en Ataun, y se ha convertido en una práctica habitual estacionarlos durante mucho tiempo en algunos aparcamientos. Por ello, hay zonas y momentos en los que no es fácil aparcar bien los vehículos, bien porque queremos aparcar en el mismo sitio al que vamos, bien porque no hay sitio para aparcar bien.

Asimismo, es preciso tener en cuenta que, si bien está permitido aparcar las autocaravanas en el término municipal, el estacionamiento de caravanas y remolques queda prohibido de acuerdo con el artículo 9 de la ordenanza municipal reguladora del tráfico, circulación y seguridad vial vigente en Ataun:

Artículo 9.º Prohibición de aparcamiento.

1. No podrán aparcar en las calles los remolques, autobuses, tractores, caravanas ni vehículos de más de 3.500 kilogramos de peso o con capacidad para más de 9 personas, salvo en

baino gehiagorentzako lekua duenik ere, berariaz baimendutako modu, toki eta aldietan salbu edo, ordutegi baimenduaren barruan, zamaketa lanak egiteko izan ezik.

2. Ezin izango da leku berean 15 egun segidan baino gehiagoko aparkaldi jarraitik egin, Udaletxeari jakinarazitako ezinbesteko kausarik ezean.

3. Agindu hau, dena den, ibilgailuen aparkaldia arautzen duen udal-ordenantzan ezarritakoari lotuko zaio.

4. Bertako aparkaldiak erregulatzen dituen arautegiari egindako arau-hausteagatik balizko arau-hausteetan gidaria identifikatzeko ezetzak, 339/90 Lege Errege Dekretuan jasotako suposamenduetan titularrak identifikatzeko ezetzari dagokionaren tratamendu bera izango du.

5. Ezin izango da ibilgailurik aparkatu baimendutako ordutegian Zamaketa Lanetarako erreserbatutako tokian.

Egoera horri nolabaiteko konponbidea aurkitze aldera, eta karabanak dituztenei zerbitzua emate aldera, Zubikoetako industrialdean lursail bat alokatu eta prestatu du Ataungo Udalak. Oraingoz oinarrizko zerbitzua soilik ematen da bertan -leku itxia da, giltza behar da sartzeko, eta ur-hartunea dago-, baina asmoa da ahalik eta zerbitzurik osoena eskaintzea, eta litekeena da zerbitzuak gehitu ahala prezioa ere aldatzen joatea.

Honako hauek dira erabilera-arauak:

1. atala. Helburua.

Ordenantza honen helburua da Zubikoeta industrialdean karabanak eta autokarabanak aparkatzeko egokitu den eremuaren erabilera arautzea.

2. atala. Deialdia.

Urtero udalak deialdia egingo du aparkalekuaren erabilera esleitzeko. Aparkaleku plazak ez dira finkoak izango. Hortaz, libre dagoen plazan aparkatu ahal izango da.

Guztira 24 plaza daude, eta horietatik 12 plaza karabanentzat gordeko dira. Denak beteko ez balira, autokarabanei eskainiko litzaizkieke libre geratzen direnak. Hortaz, gehienez 24 baimen esleituko dira. Aitzitik, autokarabanen 12 plazak beteko ez balira, karabanei eskainiko litzaizkieke aukera. Herrian 12 karabana baino gehiago egongo balira, lehenasuna izango lukete autokarabanen aldean; izan ere, herriko gainerako lekuetan aparkatzeko modurik ez daukate. Beraz, kasu horretan, karabanak 12 baino gehiago izango lirateke, eta autokarabanak gutxiago.

Deialdia egitean epea zabalduko da, eta Zubikoeta aparkalekua erabili nahi duenak Udalean aurkeztu beharko du eskaera, horretarako berariaz prestatutako inprimakia beteta.

Herrian erroldatutako karabanek eta pertsonak izango dute lehenasuna kasu guztietan, eta, plazarik libre geratuko balitz, herritik kanpokoek ere aparkatzeko aukera izango lukete. Plazak baino eskaera gehiago egongo balira, zozketa egingo litzaizkieke plazak esleitzeko.

3. atala. Erabilera arauak.

1. Autokarabanarik edo karabanarik ez dagoenean, ezingo da autoa modu iraunkorrean aparkatuta utzi.

2. Instalazioak eta zerbitzuak baimendutako autokarabanak aparkatzeko eta mantentze-lanak egiteko bakarrik erabiliko dira.

3. Guztiz debekatua dago instalazio horietan autokarabanak garbitzea eta kanping jarduerak egitea.

4. atala. Baimenaren iraupena.

Aparkalekua erabiltzeko baimena urtebetekoa izango da, eta urtez urte luzatuko da dagokion tasa ordaindu ondoren, betiere, udalak edo erabiltzaileek eragozpenik izan ezean.

los modos, lugares y períodos expresamente autorizados o, dentro del horario autorizado, salvo para realizar operaciones de carga y descarga.

2. No se podrá efectuar un estacionamiento continuado superior a 15 días consecutivos en el mismo lugar, salvo causa de fuerza mayor comunicada al Ayuntamiento.

3. La presente Orden se ajustará, en todo caso, a lo establecido en la Ordenanza Municipal reguladora del Estacionamiento de Vehículos.

4. La negativa a identificar al conductor en supuestos de infracción a la normativa reguladora de los estacionamientos en la misma tendrá el mismo tratamiento que la negativa a identificar a los titulares en los supuestos contemplados en el Real Decreto Ley 339/90.

5. No se podrá estacionar ningún vehículo en la zona reservada a Carga y Descarga durante el horario autorizado.

Con el fin de dar una solución a esta situación y dar servicio a las personas con caravanas, el Ayuntamiento de Ataun ha procedido al alquiler y preparación de un terreno en el polígono industrial de Zubiko. Por el momento, sólo se presta el servicio básico, que es un espacio cerrado, con llave para entrar y toma de agua. Aun así, la idea es ofrecer un servicio lo más completo posible, y es posible que a medida que se amplíen los servicios, el precio también cambie.

Las normas de uso son las siguientes:

1. sección. Objeto.

El objeto de la presente Ordenanza es la regulación del uso de la zona habilitada para el estacionamiento de caravanas y autocaravanas en el Polígono Industrial de Zubiko.

2. sección. Convocatoria.

Anualmente el Ayuntamiento convocará la asignación del uso del aparcamiento. Las plazas de aparcamiento no tendrán carácter fijo. Por tanto, se podrá estacionar en la plaza disponible.

En total hay 24 plazas, de las cuales 12 se reservarán para caravanas. Si no se cumplieran todas, se ofertarán a las autocaravanas las que quedasen libres. Por tanto, se asignarán un máximo de 24 autorizaciones. Por el contrario, si no se cubrieran las 12 plazas de autocaravanas, se ofertaría la opción a las caravanas. Si hubiera más de 12 caravanas en el pueblo, tendrían preferencia sobre las autocaravanas, ya que no pueden estacionar en el resto del pueblo. Por lo tanto, en este caso las caravanas serían más de 12 y las autocaravanas menos.

En el momento de la convocatoria se abrirá un plazo, debiendo presentar ante el Ayuntamiento la solicitud, cumplimentando el impreso habilitado al efecto.

Tendrán preferencia en todo caso las caravanas y personas empadronadas en la localidad, y si quedara plaza libre, podrán estacionar también las de fuera de la localidad. Si hubiera más solicitudes que plazas, se haría un sorteo para adjudicar las plazas.

Sección 3.ª Normas de uso.

1. Cuando la autocaravana o caravana no esté en el aparcamiento, no se podrá estacionar un vehículo de otra índole de forma permanente.

2. Las instalaciones y servicios se utilizarán exclusivamente para el estacionamiento de autocaravanas autorizadas y para la realización de obras de reparación.

3. Queda terminantemente prohibida la limpieza de autocaravanas y la realización de actividades de camping en estas instalaciones.

Sección 4.ª Duración de la autorización.

La autorización para la utilización del aparcamiento será de un año, prorrogándose por períodos anuales, con el previo pago de la tasa correspondiente, siempre que no exista impedimento por parte del Ayuntamiento o de los usuarios.

#### 5. atala. Erantzukizunak.

Jabari publikoa izanik, udalak bere gain hartuko ditu legez dagozkion erantzukizunak. Nolanahi ere, udal-baimenaren titularraren gain izango dira ibilgailuak jasan ditzakeen kalte eta galerak, eta horien artean daude lapurretak edota hirugarrenen parte-hartzeak sortutako kalte eta galerak, jabari publikoaren aprobetxamendu bereziak ez baitakar berekin ibilgailuen depositu izaerarik.

#### 6. atala. Arau hausteak.

Erabiltzaile batek araudi honek ezartzen dituen erabilera arau horietako bat hausten badu, udalak baimena erretiratu ahal izango dio epea bukatu aurretik.

Honela, lehenengo arau-haustearekin udalak ohartarazi egingo dio, eta bigarrenarekin baimena erretiratuko dio.

Era berean, baimena erretiratuko zaie urteko kanona edo prezio publikoa ordaindu ez dutenei.

#### TARIFAK

##### *Autokarabana eta karabanentzat gordetako eremua*

Autokarabanak: 365 €+BEZ urteko.

Karabanak: 365 €+BEZ urteko.

Aipatutako urteko kuota urte osoari dagokio eta bere osotasunean ordaindu beharko da nahiz eta aparkalekua epealdi batzuetan ez erabili. Aparkalekuaren erabilera urte naturala baino lehenago amaitu nahi bada, ez da kuotaren inolako zatirik itzuliko.

#### Sección 5. Responsabilidades.

Siendo de dominio público, el Ayuntamiento asumirá las responsabilidades que legalmente le correspondan. En todo caso, correrán a cargo del titular de la autorización municipal los daños y perjuicios que pueda sufrir el vehículo. Entre ellos, se incluyen los daños y perjuicios ocasionados por robo o participación de terceros, ya que el aprovechamiento especial del dominio público no implica la condición de depósito de vehículos.

#### Sección 6. Infracciones.

En el caso de que un usuario infrinja alguna de las normas de uso establecidas en el presente Reglamento, el Ayuntamiento podrá retirar la autorización antes de que finalice dicho plazo.

Así, con la primera infracción el Ayuntamiento le advertirá; y, con la segunda, retirará la autorización.

Asimismo, se procederá a retirar la autorización a quienes no hayan abonado el canon o precio público anual.

#### TARIFAS

##### *Zona reservada a autocaravanas y caravanas*

Autocaravanas: 365 €+IVA al año.

Caravanas: 365 €+IVA anual.

La citada cuota anual corresponde al año en curso y deberá ser abonada en su totalidad aunque no se utilice el aparcamiento durante varios períodos. Si se desea finalizar la utilización del aparcamiento antes del año natural, no se devolverá parte alguna de la cuota.